ARAIZKO UDALA

# ARAIZKO KABLEAREN EGUNA, 2022:

## Erakustaldi berria datorren igandean, ekainak 26, aurtengoan txikienak protagonistak.

*Aurtengo edizioak haurrengan eta transmisioaren garrantzian jartzen du arreta, hauek funtsezkoak baitira gure herriak, ohiturak, landa-eremua eta natura bizirik mantentzeko.*

Aurten, Araizko eta Beteluko haurrak ikasturte bukaera berezia izaten ari dira. Ikasturtea ixtea markatzen duten ibilaldi eta jarduera didaktikoez gain, bailarako tradizioak, lurraldea, natura, produktuak eta ondarea ere izaten ari dira nagusi ikasturteko azken txanpan.

Horretarako, "Araizko Zaporeak" elkartea bailarako eskolara joan da, txikienei ondare hori eta elkartearen balioak erakusteko eta transmititzeko, hori guzia kontserbatzeko eta iraun dezan asmoarekin. Eta honetarako zer aukera hoberik "Araizko Kablearen Eguna" ospatzea!!! Araizko kableak, Malloetako paisaiaren elementu berezienetako bat da, eta haurrek tokian bertan aukera izango dute ondarea hau ezagutzeko eta, nolabait ekimen honetan partaide sentitzeko. Kableak bailararen bizitza eta ohiko bizimoduari estu lotutako ondarea dugu, baserria eta abeltzaintza nabarmentzen direlarik.

<u>Lurraldea bizirik mantentzeko etorkizuna eta itxaropena dira haurrak</u>

Kable-sistema berezi honen bidez, tirolina moduan, 4 hamarkada baino gehiagoan Malloetako mendietako zelaietako belarra baserrietaraino jaistea lortu zuten araiztarrek, eta, sistema honek berak bailarako kultura-, etnografia-, ingurumen- eta paisaia-balio eta ondare ugari biltzen ditu. Ondare hori, belaunaldi berriei transmititzen ez bazaie, galduz joango da, eta hori landa eremuak pairatzen duen abandonu kezkagarriaren beste adierazle bat izango da.

"Araizko Zaporeak" elkartearen ekimenarekin eta Udalaren laguntzarekin, Araizko herritarrek, bailaren biziraupenerako ondare horrek duen garrantzia jakinda, urteak daramatzate ildo horretan ekimenak bultzatzen, eta, zalantzarik gabe, Araizko Kablearen Eguna hitzordu garrantzitsuenetariko bat bihurtu da.

2017an sortu zen, eta helburu garrantzitsuak ditu, belaunaldi berriei transmititu nahi zaizkienak:

- Bailarako landa eta natura ondarea berreskuratzea eta sustatzea
- Baserritarren kultura eta, horrekin batera, baserrietako nekazaritzako elikagai osasuntsuen ekoizpena ikustaraztea eta zabaltzea.
- Araizko bailarako kultur eta turismo sustapena, bailarako eta zonalde osoko turismoa bultzatuz, landetxe, zerbitzu, jatetxe eta abarren bidez.

Araitz jada ez da XX. mendearen hasieran Malloetatik belarra garraiatzeko bere kable-sistema jarri zuen bailara, ia baserritarra osorik zena *(kableena berrikuntza zoragarria izan zen garai hartan astoak eta behorrekin beharrean kablen bidez etxeratzen baitzituzten belar buixi preziatuak),* baina harro egon daiteke baserriko ekonomia oraindik oso presente duelako, naturarekiko, lurrarekiko, tradizioa-rekiko eta auzolanetik bizilagunekiko lotura bizirik mantenduz.

Araizko kable berreskuratua horren guztiaren adierazgarri bat da, baina apustua askoz ere sakonagoa da: ekoizpen iraunkorra, inguruko baliabideak errespetatzea, kontsumo arduratsua, tokiko produktuak eta elikadura osasuntsua, etab. Beti, gainera, landa-ingurune hori espazio bizi eta aktibo gisa aldarrikatzetik abiatuta, hurrengo belaunaldiei transmititu behar diegun espazio hori, beren bizi-proiektuak bertan garatu ahal izan ditzaten.

<u>Egitarauko hitzorduak: Uztegin (hilaren 25ean) eta Gaintzan (26an)</u>

Aurten, lehen aldiz, bi egunetan "banatu" da ekitaldia.

Hilaren **25ean** (larunbata), **Uztegin**, sega-tailerra egingo da 7 urtetik gorako haurrentzat. Eta, gainera, "GAZTELU Sega Taldea"rekin sega-erakustaldia egingo da. Jarduera bat, segarena, baserriko animaliak elikagaiz hornitzeko oinarrizkoa dena eta, baserriko beste lan askorekin gertatu den bezala, erronka eta apustu bihurtu dena (Herri Kirolak).

Hilaren **26an** (igandea), urtero bezala, **Gaintzan** izango da topagunea. 11:00etan plazan geldituko da. Bertan, kableetarantz abiatu aurretik, bideo labur bat proiektatuko da, Araizko kableei eta berreskuratzeari buruzko azalpen orokorrekin. Gero, taldean, ibilaldi polit batean igoko da, kableak berreskuratu diren tokiraino.

Toki honetan, segaren zorrozketaren, belarraren mozketaren eta izara batzuetan belarraren pilatzearen (buixiek) erakustaldia egingo da, gero kabletik botako diren belar-fardoak sortuz. Fardoak kabletik botako dira, aurreko mendeko 20. eta 60. urteen artean Malloetan hain ohikoa den lan hori ikustaraziz.

Ondoren pintxoak dastatuko dira, bertako produktuarekin eta edariarekin. Hori guztia Gaintzako txokoan) egingo den bazkarirako aperitibo gisa, paellada herrikoia: 15 € helduak eta 5 € haurrak . txartelak Surtidoren eta M Tere eta Rosanean edo washp 674366920 erreserba egiteko aukera. Bazkalostean kanta herrikoiak kantatzeko aukera izango, zalantzarik gabe, oso entretenigarria eta dibertigarria izango delarik

Arribe-Atallu, 2022 ekainaran 20a

## INFORMAZAIO GEHIAGO

### XX. mendeko 20. eta 60. urteen artean funtzionatu zuen aireko kableen sarea

Aralarko Malloetako larreak kalitate bikainekoak ziren eta dira, eta, beraz, funtsezko elikagaia dira neguan baserrietako aziendarentzat. Hori bai, Malloek erliebe malkartsua dute, sarbide zaila eta lan egiteko oso toki zaila da ere. Horregatik, baserritarrek lotuta moztu zuten belarra askotan, ez erortzeko. Belarra moztu ondoren, konplikatuena zetorren: nola jaitsi belarra baserrietara? Iraganean, astoak garraiobide ederra bazuten ere, lana izugarria eta askoz motelagoa zen. Horrela, kableen sistema aztertu duten adituen arabera, 1923-24 urte inguruan lehen kableak jarri ziren. Pixkanaka-pixkanaka, bailara osoan zehar kable-sare zabala garatu zen (batzuk ia 2 kilometrokoak) eta joan den mendeko 60ko hamarkadaren bukaera arte funtzionatu zuen.

Afera horretan familia osoak parte hartzen zuen, argazki zaharrek adierazten duten bezala, eta Araizko Zaporak-ek duela urte batzuk egindako bideo batean jasotzen da (https://www.facebook.com/232615640199690/videos/2261034480843826) . Eta familian eta "auzolanean", Araizko bizilagunek berreskuratu dute jarduera hau. Horretarako, Gaintzako herritik hurbil, 400 metro kable eta euskarri berreskuratu dituzte, bailarako nekazaritza- eta abeltzaintza-kulturaren adierazpen hori bizirik mantentzeko, eta, Araizko Kablearen Eguna bezalako ekitaldien bidez ezagutarazteko, kultura horren atzean dagoena aldarrikatuz eta ikusaraziz: paisaia, baserria, produktu osasungarriak, tradizioak, historia, hizkuntza, etab.

### Araizko Zaporeak

Araizko Zaporeak da ekitaldi honen antolatzailea. 2017an sortu zen elkartea, bailarako garapena hainbat arloetan bultzatzeko asmoarekin. Hori dela eta, nahiz eta eremu desberdinetan lan egin, batez ere, ohizko ekonomiara ari dira ahaleginak bideratzen (baserriak, bertako produktuak, artisautza, etab.), baita lehenengo sektoreak beste esparruekin izan daitezkeen harremanetara ere (zerbitzuak, turismoa etab.). Berez, jasotako paisaia, ondarea eta kultura oinarritzat hartuta, bailararen etorkizunerako oinarriak finkatu nahi dituzte, gaur egungo egoeretara egokituz, era jasangarria eginez, eta jasotako herentzia baztertu eta ahaztu gabe.

Honek guztiak, gainera, ekoizpen eta kultura hori kanporantz proiektatu nahi du, bailarara bisitariak erakartzen eta zerbitzu eta turismoaren tokiko ekonomia bultzatzen saiatuz. Horretarako, Araizko Udalaren eta Plazaolako Turismo Partzuergoaren laguntza dute.

ARAIZKO UDALA

PARTZUERGO TURISTIKOA PLAZAOLA CONSORCIO TURÍSTICO

# ARAIZKO KABLEAREN EGUNA, 2022:

## *Nueva cita este domingo, 26 de junio, con los y las más txikis como protagonistas.*

**La edición de este año se centra en los y las más txikis, así como en la importancia de la transmisión, fundamentales ambos para la conservación de nuestros pueblos, costumbres, medio rural y naturaleza.**

Este año, el fin de curso para los y las niñas de Araitz y Betelu está siendo especial. Más allá de las típicas excursiones y actividades lúdico-didácticas que marcan el cierre del curso escolar, las tradiciones del valle, su territorio y naturaleza, sus productos y su patrimonio toman protagonismo en la última "txanpa" del curso.

Para ello la asociación "Araizko Zaporeak" se ha acercado a la eskuela del valle para enseñar y transmitir a los y las más txikis ese patrimonio y los valores que impulsa la asociación para la recuperación y conservación del mismo. Y qué mejor ocasión que la celebración del "Araizko Kablearen Eguna" (Día del cable de Araitz) para que todos y todas se sientan partícipes y conozcan in situ uno de los elementos más singulares del paisaje de las Malloas: los cables de Araitz. Un patrimonio íntimamente ligado a la vida del valle y a su medio tradicional de vida: el caserío y la ganadería

<u>Son el futuro y la esperanza para mantener vivo el territorio</u>

Este peculiar sistema de cables que, a modo de tirolinas, permitió durante más de 4 décadas descender la hierba de los prados montanos de las Malloas hasta los caseríos, reúne en sí mismo muchos de los valores y patrimonio cultural, etnográfico, medioambiental y paisajístico del valle. Un patrimonio que, si no se transmite a las nuevas generaciones, se irá perdiendo y su pérdida será una expresión más del preocupante abandono que sufre el medio rural.

Los y las vecinas de Araitz, con la iniciativa de "Araizko Zaporeak" y el apoyo del Ayuntamiento, conscientes de la importancia de este patrimonio en la pervivencia del valle, llevan años impulsando iniciativas en esta línea y, sin duda, "Araizko Kablearen Eguna" es ya una cita emblemática.

Surgido en 2017, este día festivo persigue objetivos importantes que se quieren trasmitir a las nuevas generaciones:

- Recuperación del patrimonio rural y natural del valle
- Visualizar y difundir la cultura baserritarra y, con ello, la producción de productos de sus caserios, alimentarios respetuosos con el medio ambiente .
- Promoción cultural y turística del valle de Araitz, favoreciendo el disfrute turístico de toda la zona a través de sus alojamientos, servicios, restaurantes, etc.

Araitz ya no es el valle, casi baserritarra en su totalidad, que a principios del siglo XX instalaba su sistema de cables para transportar la hierba desde las Malloas (una innovación, por otro lado, extraordinaria en su época que sustituía a los burros y yeguas para el transporte de los preciados fardos -buixiak- de hierba), pero puede presumir de que la economía del caserío aún está muy presente, tratando de mantener vivo el vínculo con la naturaleza, con la propia tierra, con la propia tradición y con los y las vecinas desde el auzolan.

El recuperado cable de Araitz es una expresión de todo ello, pero la apuesta es mucho más profunda: producción sostenible, respeto a los recursos del entorno, consumo responsable, producto local y alimentación sana, etc. Siempre, además, desde la reivindicación de este entorno rural como un espacio vivo y activo que debemos transmitir a las generaciones venideras para que puedan desarrollar en él sus proyectos de vida

<u>Programa: citas en Uztegi (día 25) y en Gaintza (26)</u>

Este año, por primera vez, este evento se "parte" en dos días.

El día 25 (sábado), en la localidad de Uztegi, se hará un taller de siega para niños y niñas mayores de 7 años. Y, además, se hará una exhibición de siega con "GAZTELU Sega Taldea". Una actividad, la de la siega, básica para proveer de alimento a los animales del caserío y que, como otros muchos trabajos del caserío, se convirtió en motivo de desafío y apuestas (Herri Kirolak).

El día 26 (domingo) la cita será, como todos los años, en Gaintza. A las 11:00h se quedará en la plaza donde, antes de partir hacia el cableado, se proyectará un breve video con explicaciones generales sobre el cableado de Araitz y su recuperación. Posteriormente, en grupo se ascenderá en un bonito paseo hasta el lugar donde se ha recuperado el cableado.

En este punto se hará una demostración de afilado de la guadaña, de siega de la hierba y de apilamiento en unas sábanas (buixiek) creando los fardos que, luego, se lanzarán por el cable, recreando esta labor tan habitual en las Malloas entre los años 20 y 60 del siglo pasado.

Después habrá una pequeña degustación de pintxos con producto local y bebida. Todo ello como aperitivo para la comida que tendrá lugar en el txoko de Gaintza ,paellada popular. 15 € adult@s y 5€ niñ@s, los tikes estarán en las tiendas y en el bar del valle o reservas en 674366920 washp. Con el postre tendremos ocasión de cantar canciones populares, que sin duda, harán muy amena y divertida la sobremesa.

Arribe-Atallo, 20 de junio del 2022

## MAS INFORMACIÓN

### Red de cables aéreos que funcionó entre los años 20 y 60 del siglo XX

Los pastos montanos de las Malloas de Aralar eran, y son, de extraordinaria calidad y, por tanto, una fuente de alimento fundamental para el ganado de los caseríos durante el periodo invernal. Eso sí, las Malloas ofrecen un relieve escarpado, de difícil acceso y complicado para trabajar. Por ello, a menudo, los baserritarras hacían la siega de la hierba atados para no caerse. Una vez cortada la hierba, lo realmente complicado venía después. ¿cómo bajar la hierba a los caseríos? En el pasado los burros eran un medio de transporte eficaz pero el trabajo era ingente y mucho más lento. Así, según las personas que han estudiado esta actividad, hacia los años 1923-24 se instalan los primeros cables. Poco a poco, se fue desarrollando una amplia red de cables por todo el valle (algunos de casi 2 kilómetros) y que funcionó hasta finales de los años 60 del pasado siglo.

Esta era una labor en la que participaba toda la familia, tal y como lo atestiguan las fotos antiguas y se recoge en un video que Araizko Zaporeak realizó hace unos años (https://www.facebook.com/232615640199690/videos/2261034480843826) . Y también en familia, y en "auzolan", los y las vecinas de Araitz han recuperado esta actividad. Para ello, cerca del pueblo de Gaintza, han recuperado 400 metros de cable y soportes para mantener viva esta expresión de la cultura agro-ganadera del valle y, para darla a conocer a través de eventos como "Araizko Kablearen Eguna", reivindicando y visibilizando con ello, lo que hay detrás de dicha cultura: el paisaje, el caserío, sus productos (especialmente el queso), tradiciones, historia, su lengua, etc.:

### Araizko Zaporeak

La organización de este evento viene de la mano de "Araizko Zaporeak". Un colectivo que surge en 2017 con el objetivo de trabajar activamente para el impulso y desarrollo del valle en diferentes ámbitos, pero muy especialmente, en la economía tradicional (caserío, productos locales, artesanía, etc.), y en su relación con otros sectores como los servicios, el turismo, etc. Se trata de, tomando como base la herencia de paisaje, patrimonio, y culturas heredadas, poner las bases para el futuro del valle, ajustándose a los tiempos, de forma sostenible, y sin olvidar dicha herencia.

Todo ello, además, también persigue proyectar dicha producción y cultura hacia el exterior, tratando de atraer a visitantes al valle y favorecer la economía local de servicios y turismo. Para ello cuentan con el apoyo del Ayuntamiento de Araitz y del Consorcio Turístico del Plazaola.